

Gaur hasten da lehen promozioa

**EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAK
FRESKOETAN ESPEZIALIZATZEKO PROGRAMA
AURRENDARI BAT ATERA DU LANBIDE HEZIKETA
DUALEAN**

- Elkarrekin sortu dute programa EEIk, EROSKI eta Leioako Ostalaritza Eskolak
- Titulazio horren bidez, asmoa da bai ekoizpen ehunean dagoen eskariari erantzutea eta bai programan parte hartzen duten ikasleen enplegarritasuna hobetzea
- Sukaldaritza eta Gastronomiako erdi mailako teknikariaren titulazioan sartu dute espezializazioa

Gasteiz, 2019ko martxoaren 11.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 'freskoetan espezializatzeko' programa aurrendaria atera du, Lanbide Heziketa Dualaren eskaintzaren barruan. Gaur hasiko da lehen promozioa, eta datorren urteko ekainean aterako dira lehen tituludunak.

Sukaldaritza eta Gastronomiako erdi mailako teknikariaren titulazioan sartu dute espezializazio programa hori. Hura sortzeko, elkartu egin dira Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua ([EEI](#)), [EROSKI](#) eta [Leioako Ostalaritza Eskola](#). Hirurek ere era aktiboan parte hartu dute ikaslearen kompetentzien soslaia diseinatzeko orduan. Hala, ikastetxean jasoko dute prestakuntza, batetik, eta praktika ordainduekin eta zainduekin osatuko dute, bestetik, bi alorretan ere behar diren kompetentziez jabetu daitezen. Prestakuntza akademikoa Leioan izango da, Ostalaritza Eskolan. Zikloaren bigarren mailan, EROSKI taldearen dende alderdi praktikoan dihardutenen %75 hartuko dituzte. Hirugarren mailan, praktiken %85 EROSKIn egingo dute, eta %15 Leioako Ostalaritza Eskolan.

Titulazio horren bidez, batetik, erantzun bat eman nahi zaio ekoizpen ehunean dagoen eskariari, eta, bestetik, programan parte hartzen duten ikasleen enplegarritasuna hobetu. Horrez gain, lan munduan beste irteera bat izango dute sukaldaritzaren bidea argi ikusten ez duten ikasleek.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

"Merkataritzaren sektorean, gaur egun, profesionalak behar dira freskoetan espezializatuak, eta hori indartu nahi dugu Lanbide Heziketaren alorretik. Espezializazio aurrendari hori lan merkatuaren premietara egokituta dago, zehazki, banaketaren mundura, eta, hortaz, erantzun bat emango dio lan merkatuari, gero eta gehiago ari baita profesional espezialistak eskatzen", azaldu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendariak, Rikardo Lamadrdek.

"Gaur egun, freskoen arloan profesionalentzat dagoen prestakuntza gehiago da elikaduraren industriari begirakoa merkataritzari begirakoa baino; horregatik, enpresak gure langileak etengabe prestatzen ari gara profesionaltasun ziurtagiriekin. Espezializazio berri honek, zalantzarik gabe, erantzun bat emango dio eskean den gure sektoreari. Esate baterako, EROSKI bakarrik hartzen badugu kontuan, iragarrita dago datorren 10 urteetan 400 profesional beharko direla espezializazio arlo horretan; izan ere, freskoak ari dira hartzen kontsumo handiaren ardatza. Horrek esan nahi du jendea formatu beharko dela ekoizpen ehunaren eta kontsumitzailearen premiei erantzuteko. Langile taldeen gaitasuna indartzea lehentasunezkoa da EROSKIrentzat lehiakortasuna hobetzeko", esan du EROSKIren Gizarte arloko zuzendari nagusiak, Iñigo Eizaguirrek.

"Sukaldaritza eta Gastronomiaren ziklo teknikoa oso lotua dago freskoen espezialistekin; dena dago erlazionatuta elikadurarekin eta osasunarekin. Espezializazio honek ikasleen enplegarritasuna hobetuko du, eta lan merkatuko eskarietara oso doituta dagoen irteera bat emango du", esan du Leioako Ostalaritza Eskolako zuzendariak, Ibon Andrakak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)